



MC200203

### AKTA / ACTA

KONTRATAZIO MAHAIA MESA DE CONTRATACION					
<b>Bilkura mota</b> Tipo de sesión	<b>Ohikoa</b> Ordinaria	X	<b>Ezohikoa</b> Extraordinaria	<b>Presakoa</b> Urgente	
<b>Bilera zenbakia</b> Nº de sesión	05/20(a)	<b>Eguna</b> Día /		2020-02-03	
<b>Deia</b> Convocatoria	1	<b>Hasiara ordua</b> Hora de inicio	13:05h	<b>Bukaera ordua</b> Hora de finalización	13:20h
<b>Tokia</b> Lugar	Udaletxeko bilera gela/Sala de reuniones del Ayuntamiento				

### BERTARATU DIRA / ASISTENTES

Eñaut Gracia Ibarra (Batzordeburua / Presidente)  
Nagore Sarasola Otermin (Idazkari Nagusia / Secretaria General)  
Irene Soto (Udal Kontuhartzailea/Interventora municipal)  
Tomás Martín (Ondare eta Kontratazioko Arduraduna / Responsable de Contratación y Patrimonio)  
Xabier Agirre (Udal Arkitektoa/ Arquitecto municipal)  
Nikolas Bengoetxea (Iraunkortasuneko Teknikariak/Técnico de Sostenibilidad)  
Maite Sáez (Idazkaria/Secretaria)

Bilkuran daude ere:  
- Joseba Etxarte (PSE/EE)

Asisten a esta sesión:  
- Joseba Etxarte (PSE-EE)

### GORABEHERARIK / INCIDENCIAS

Ez da gertatu.

No hay.

Jarraian, quoruma zegoenez, partaideak  
gai-zerrendako gaiak aztertzen hasi dira.

Seguidamente, y dado que existe quorum,  
los asistentes proceden a tratar los temas del  
orden del día.



## ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

Ez da gertatu.

1.- Proposamena: "Errenteriako Niessen eraikinean instalazio fotovoltaiko baten hornidura eta muntaketa" kontratazeko egindako Prozedura Irekian aurkeztutako eskaintzen 3. artxibo elektronikoa irekitzea.

Ondare eta Kontratazioko Arduradunak adierazi du joan den abenduaren 30ean onartutako proposamenaren: "ARTICO INGURUMENA, S.L.", "ORION PROYECTOS, S.L."; "EKISOLAR, INICIATIVAS DE TECNOLOGÍA Y SOSTENIBILIDAD, S.L."; "IBERDROLA CLIENTES, S.A.U." eta "ENERGIA, INNOVACIÓN Y DESARROLLO FOTOVOLTAICO, S.L."-ren, 2 zenbakiko Artxibo Elektronikoak ireki zirela (Dokumentazio Teknikoa) eta beraien edukia udal Zerbitzu Teknikoei bidali zitzaizkiela, iritzi balorazioaren araberako esleitze-irizpideei buruzko txostena eman zezaten.

Iraunkortasuneko Teknikariak adierazi du "IBERDROLA CLIENTES, S.A.U." eta "ENERGÍA, INNOVACIÓN Y DESARROLLO FOTOVOLTAICO, S.L." enpresek, formulak aplikatuz baloratu beharreko datuak sartu dituztela, eta 3. artxiboan sartu behar direla. Hornidura- eta muntaketa-epea eta berme-epearen hobekuntza, "Iberdrola clientes, S.A.U." enpresaren kasuan, eta egikaritze-epea, "Energía, innovación y desarrollo fotovoltaico, S.L." enpresaren kasuan.

## COMENTARIOS Y ACUERDOS

No hay.

1.- Propuesta: Apertura de los archivos electrónicos nº 3 de las ofertas presentadas en el Procedimiento Abierto incoado para la contratación del "Suministro y montaje de una instalación Fotovoltaica en el edificio Niessen de Errenteria".

El Responsable de Contratación y Patrimonio señala que el pasado 30 de diciembre, se procedió a la apertura del Archivo Electrónico nº 2 (Documentación Técnica) de las propuestas admitidas: "ARTICO INGURUMENA, S.L.", "ORION PROYECTOS, S.L."; "EKISOLAR, INICIATIVAS DE TECNOLOGÍA Y SOSTENIBILIDAD, S.L."; "IBERDROLA CLIENTES, S.A.U." y "ENERGIA, INNOVACIÓN Y DESARROLLO FOTOVOLTAICO, S.L.", remitiéndose el contenido de los mismos, correspondiente a las ofertas admitidas, a los Servicios Técnicos municipales, para que emitieran el correspondiente informe sobre los criterios de adjudicación cuya valoración depende de juicios de valor.

El Técnico de Sostenibilidad, señala, que las empresas "IBERDROLA CLIENTES, S.A.U." y "ENERGÍA, INNOVACIÓN Y DESARROLLO FOTOVOLTAICO, S.L.", han incluido datos a valorar mediante la aplicación de fórmulas y que procede incluir en el archivo nº 3. El plazo de suministro y montaje y la mejora del plazo de garantía en el caso de "IBERDROLA CLIENTES, S.A.U." y el plazo de ejecución en el caso de "ENERGÍA, INNOVACIÓN Y DESARROLLO FOTOVOLTAICO, S.L."



Horregatik aipatutako enpresen eskaintzak, ez dira aztertu.

Kontratazio eta Ondareko arduradunak adierazi du, lizitaziotik kanpo utzi behar direla "IBERDROLA CLIENTES, S.A.U." eta "ENERGÍA, INNOVACIÓN Y DESARROLLO FOTOVOLTAICO, S.L." enpresek aurkeztutako eskaintzak, Iraunkortasuneko Teknikariak adierazitakoagatik.

Ondorioz, Kontratazio Mahaiak, aho batez erabakitzen du, "IBERDROLA CLIENTES, S.A.U." y "ENERGÍA, INNOVACIÓN Y DESARROLLO FOTOVOLTAICO, S.L." enpresek aurkeztutako eskaintzak, lizitaziotik kanpo uztea.

Jarraian, onartu diren eskaintzak baloratu dira eta, udal Zerbitzu Teknikoek emandako txostenaren arabera, ondorengo puntuazioa eman die Mahaiak:

Por todo ello, las propuestas mencionadas anteriormente no son analizadas.

El Responsable de Contratación y Patrimonio, señala que procede excluir de la licitación las ofertas de "IBERDROLA CLIENTES, S.A.U." y "ENERGÍA, INNOVACIÓN Y DESARROLLO FOTOVOLTAICO, S.L." en función de lo señalado por el Técnico de Sostenibilidad.

En consecuencia, la Mesa de Contratación acuerda por unanimidad excluir de la licitación las ofertas presentadas por "IBERDROLA CLIENTES, S.A.U." y "ENERGÍA, INNOVACIÓN Y DESARROLLO FOTOVOLTAICO, S.L."

A continuación se procede a la valoración de las ofertas admitidas, otorgándose por la Mesa la siguiente puntuación, de conformidad con el contenido del informe de los Servicios Técnicos Municipales:

ENPRESA	Ekipoaren ezaugarri teknikoak (25)	Ezarpen proposamena (10)	Berme epean mantentze-lanak (5)	Materialaren zerrenda (5)	Kudeaketa softwarea (3)	GUZTIRA (48)
EMPRESA	Características técnicas del equipo (25)	Propuesta de implantación (10)	Mantenimiento en plazo de garantía (5)	Relación de materiales (5)	Software de monitorización (3)	TOTAL (48)
ARTICO INGURUMENA, S.L.	14,5	6	3,5	2,5	3	29,5
ORION PROYECTOS, S.L.	22	9	4,5	4,5	3	43
EKISOLAR, INICIATIVAS DE TECNOLOGÍA Y SOSTENIBILIDAD S.L.	14	3	2,5	3	1,5	24



Jarraian, 3 zk.ko Fitxategi Elektronikoak zabaldu dira, onartutako eskaintzei dagokiena. Horiek zabaldu ondoren, hauek izan dira aurkeztutako proposamenak:

\* **José Ignacio Mendoza Plaza Jaunak**, "EKISOLAR, INICIATIVAS DE TECNOLOGÍA Y SOSTENIBILIDAD, S.L."-ren izenean diharduena, **90.157,10 euroko** eskaintzarekin (**%21 BEZa barne**), exekuzio epean, 30 egun naturaleko murrizketarekin eta berme epean 4 urteko hobekuntzarekin.

\* **Pedro José Echamendi Guisasola Jaunak**, "ORION PROYECTOS, S.L.U."-ren izenean diharduena, **78.496,91 euroko** eskaintzarekin (**%21 BEZa barne**), exekuzio epean, 30 egun naturaleko murrizketarekin eta berme epean 4 urteko hobekuntzarekin.

\* **Idoia Altamira Basterrechea Andereak**, "ARTICO INGURUMENA, S.L."-ren izenean diharduena, **67.276 euroko** eskaintzarekin (**%21 BEZa barne**), exekuzio epean, 30 egun naturaleko murrizketarekin eta berme epean 4 urteko hobekuntzarekin.

Egiaztatu da "EKISOLAR, INICIATIVAS DE TECNOLOGÍA Y SOSTENIBILIDAD, S.L." enpresak aurkeztutako eskaintzak gainditzen duela lizitazioa arautzen duten baldintza-agirietan ezarritako lizitazio-zenbatekoa; hartara, lizitaziotik kanpo utzi beharko litzateke.

Kontratazio Mahaiak aho batez erabaki du lizitaziotik kanpo uztea "EKISOLAR, INICIATIVAS DE TECNOLOGÍA Y SOSTENIBILIDAD, S.L." enpresak aurkeztutako eskaintza, gainditzen duelako lizitazioa arautzen duten baldintza-agirietan ezarritako lizitazio-zenbatekoa.

Seguidamente se procede a la apertura del Archivo Electrónico nº 3 correspondiente a las ofertas admitidas, abriéndose el mismo, siendo las propuestas presentadas las siguientes:

\* **D. José Ignacio Mendoza Plaza**, en representación de "EKISOLAR, INICIATIVAS DE TECNOLOGÍA Y SOSTENIBILIDAD, S.L." con una oferta de **90.157,10 euros (21 % IVA incluido)**, una reducción de 30 días naturales del plazo de ejecución y 4 años de mejora del plazo de garantía.

\* **D. Pedro José Echamendi Guisasola**, en representación de "ORION PROYECTOS, S.L.U." con una oferta de **78.496,91 euros (21 % IVA incluido)** una reducción de 30 días naturales del plazo de ejecución y 4 años de mejora del plazo de garantía.

\* **D<sup>a</sup> Idoia Altamira Basterrechea**, en representación de "ARTICO INGURUMENA, S.L." con una oferta de **67.276 euros (21 % IVA incluido)** una reducción de 30 días naturales del plazo de ejecución y 4 años de mejora del plazo de garantía.

Se constata que la oferta presentada por la empresa "EKISOLAR, INICIATIVAS DE TECNOLOGÍA Y SOSTENIBILIDAD, S.L.", supera el importe de licitación establecido en los pliegos que rigen la licitación, por lo que debería excluirse de la licitación.

La Mesa de Contratación acuerda por unanimidad excluir de la licitación la oferta presentada por la empresa "EKISOLAR, INICIATIVAS DE TECNOLOGÍA Y SOSTENIBILIDAD, S.L.", al superar el importe de licitación establecido en los pliegos que rigen la licitación.



Behin beharrezko kalkuluak egin ondoren, lortutako puntuazioa ondorengo da:

Una vez realizados los cálculos convenientes, la puntuación total obtenida es la siguiente:

ENPRESA	2. Artxiboa (48)	3. Artxiboa (52)	GUZTIRA (100)
EMPRESA	Archivo n.º 2 (48)	Archivo n.º 3 (52)	TOTAL (100)
ORION PROYECTOS, S.L.	43	29,14	72,14
ARTICO INGURUMENA, S.L.	29,5	49,03	78,53

Kontratazio Mahaiak erabaki du, "ARTICO INGURUMENA, S.L." enpresa proposatzea kontratuaren adjudikazio-hartzaile gisa, interes publikoentzako eskaintzarik onuragarriena baita.

**2.- Proposamena:** "IP telefonogune bat 280 IP telefono, 10 entzungailu eta egungo telefonia-sistema IP telefonia-sistema berri batera aldatzeko eta lau urtez mantentzeko beharrezkoak diren zerbitzuak eta hornidura" kontratatzeko egindako Prozedura Irekian aurkeztutako eskaintzaren 1go eta 2. artxibo elektronikoa irekitzea.

Lehenik adierazi da baliozko epean eskaintza bat (1) aurkeztu dela: "IRONTEC, INTERNET Y SISTEMAS SOBRE GNU/LINUX, S.L.". Eskaintza 3 artxibo elektronikoz osatuta dago.

Presidenteak agindu du 1 zenbakiko artxibo-elektronikoa irekitzea, hau da, Baldintza Administratibo Partikularren Agiriaren 19. artikuluan eskatutako dokumentazio osagarria duena, legezko epean aurkeztutako proposamenari dagokiona.

La Mesa de Contratación acuerda proponer a la empresa "ARTICO INGURUMENA, S.L." como adjudicataria del contrato, al ser la más ventajosa para los intereses públicos.

**2.- Propuesta:** Apertura de los archivos electrónicos nº 1 y 2 de la oferta presentada en el Procedimiento Abierto incoado para la contratación del "Suministro de una centralita IP, 280 teléfonos IP, 10 auriculares biaurales, 2 auriculares inalámbricos y servicios necesarios para la migración del actual sistema de telefonía a un nuevo sistema de telefonía IP y su mantenimiento durante cuatro años".

Se procede en primer lugar a indicar que se ha presentado dentro de plazo hábil, una (1) proposición correspondiente a: "IRONTEC, INTERNET Y SISTEMAS SOBRE GNU/LINUX, S.L.", integrada por 3 archivos electrónicos.

El Presidente ordena la apertura del Archivo denominado nº 1, que contiene la documentación complementaria exigida en el art. 19 del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, respecto de la proposición presentada dentro del plazo legal.



Kontratazio Mahaiak, aho batez, adostu du onartzea "IRONTEC, INTERNET Y SISTEMAS SOBRE GNU/LINUX, S.L."-en eskaintza, lizitazioan parte hartzeko.

Jarraian onartutako eskaintza ireki da, eta 2 zenbakiko artxibo elektronikoa irekita, aurkeztutako proposamena honako hau da:

**\* IRONTEC, INTERNET Y SISTEMAS SOBRE GNU/LINUX, S.L.** Bertan aurkeztu da proposamen teknikoa.

Behin zabaltze ekitaldia amaitu ondoren, Adituen Batzordeari bidali zaio onartutako fitxategi elektronikoaren edukia, dagokion txostena eman dezan balio-judizioen mende dauden esleipen irizpideen inguruan eta, era berean, ponderazioa egin dezaten lizitazioa arautu duten baldintza-agirian xedatutakoaren arabera.

Balorazioa egin eta gero, ekitaldi publikoan emango da jakitera emaitza eta, jarraian, ekitaldi publikoan ere, zabalduko da 3 zk-ko fitxategi elektronikoa, formulak aplikatuz baloratu beharreko irizpideei dagokiena.

**3.- Proposamena:** "Errenteriako Udaleko Gizarte Zerbitzuak azpisailaren haur eta nerabeak artatzeko programarako laguntza zerbitzuak" kontratatzeko egindako Prozedura Irekian aurkeztutako eskaintzaren 3. artxibo elektronikoa irekitzea.

Ondare eta Kontratazioko Arduradunak adierazi du joan den urtarrilaren 20an onartutako proposamenaren: "AGINTZARI, SOCIEDAD

La Mesa de Contratación acuerda, por unanimidad, admitir a la licitación la oferta presentada por "IRONTEC, INTERNET Y SISTEMAS SOBRE GNU/LINUX, S.L."

A continuación, se procede a la apertura de la propuesta admitida, y abriéndose el archivo electrónico señalado con el nº 2, la propuesta presentada es la siguiente:

**\* IRONTEC, INTERNET Y SISTEMAS SOBRE GNU/LINUX, S.L.**, que contiene la propuesta técnica.

Finalizado el acto de apertura, se remite el contenido del archivo electrónico admitido, al Comité de Expertos, para que emita el correspondiente informe sobre los criterios de adjudicación cuya valoración depende de juicios de valor, efectuando la ponderación conforme a lo dispuesto en los pliegos que han regido la licitación.

Una vez efectuada esta valoración, se dará a conocer su resultado en acto público y seguidamente se procederá, también en acto público, a la apertura del archivo electrónico nº 3 correspondiente a criterios a valorar mediante la aplicación de fórmulas.

**3.- Propuesta:** Apertura del archivo nº 3 de la oferta presentada en el Procedimiento Abierto incoado para la contratación de los "Servicios de apoyo al programa de infancia y adolescencia de la subárea de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Errenteria".

El Responsable de Contratación y Patrimonio señala que el pasado 20 de enero, se procedió a la apertura del Archivo Electrónico nº 2



COOPERATIVA DE INICIATIVA SOCIAL"-en, 2 zenbakiko Artxibo Elektronikoa ireki zela (Dokumentazio Teknikoa) eta beraren edukia Adituen Batzordeari bidali zitzaion, iritzi balorazioaren arabera esleitze-irizpideei buruzko txostena eman zezan.

(Documentación Técnica) de la propuesta admitida: "AGINTZARI, SOCIEDAD COOPERATIVA DE INICIATIVA SOCIAL", remitiéndose el contenido del mismo, correspondiente a la oferta admitida, al Comité de Expertos, para que emitiera el correspondiente informe sobre los criterios de adjudicación cuya valoración depende de juicios de valor.

Jarraian, onartu den eskaintza baloratu da eta, Adituen Batzordeak emandako txostenaren arabera, ondorengo puntuazioa eman dio Mahaiak:

A continuación se procede a la valoración de la oferta admitida, otorgándose por la Mesa la siguiente puntuación, de conformidad con el contenido del informe del Comité de Expertos:

ENPRESA	Udalerrian testuinguratzea (10)	Zerbitzuaren deskribapena (20)	Proposamen metodologikoa (21)	GUZTIRA (51)
EMPRESA	Contextualización en el municipio (10)	Descripción del servicio (20)	Propuesta metodológica (21)	TOTAL (51)
AGINTZARI SOCIEDAD COOPERATIVA DE INICIATIVA SOCIAL	9,5	19	20	48,5

Jarraian, 3 zk.ko Fitxategi Elektronikoa zabaldu da, onartutako eskaintzari dagokiona. Hori zabaldu ondoren, hau izan da aurkeztutako proposamena:

\* **Alberto Mikel Gorostizaga Elu Jaunak**, "AGINTZARI, SOCIEDAD COOPERATIVA DE INICIATIVA SOCIAL"-en izenean diharduena, **193.800 euroko** eskaintzarekin (%21 BEZa barne) lehenengo urtebeterako.

Behin beharrezko kalkuluak egin ondoren.

Seguidamente se procede a la apertura del Archivo Electrónico nº 3 correspondiente a la oferta admitida, abriéndose el mismo, siendo la propuesta presentada la siguiente:

\* **D. Alberto Mikel Gorostizaga Elu**, en representación de "AGINTZARI SOCIEDAD COOPERATIVA DE INICIATIVA SOCIAL" con una oferta de **193.800 euros (21 % IVA incluido)** para la primera anualidad.

Una vez realizados los cálculos convenientes

**ERRENTERIAKO UDALA**

Kontratazio eta Ondarea



**AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA**

Contratación y Patrimonio

Kontratazio Mahaia erabaki du,  
"AGINTZARI, SOCIEDAD COOPERATIVA DE  
INICIATIVA SOCIAL" enpresa proposatzea  
kontratuaren adjudikazio-hartzaile gisa, lizitazioen  
ezarritako baldintzak betetzeagatik.

La Mesa de Contratación acuerda proponer  
a "AGINTZARI, SOCIEDAD COOPERATIVA DE  
INICIATIVA SOCIAL" como empresa adjudicataria,  
al cumplir con los requisitos establecidos en la  
licitación.

Errenterian, 2020ko otsailaren 3an

BATZORDEBURUA,

Stua/Fdo.: Eñaut Gracia Ibarra.

IDAZKARIA,

Stua/Fdo.: Maite Saéz.